



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2019IPLE0012

**Eguna:** 2019-12-20

**Ordua:** 18:30 – 19:00

**Tokia:** Areto nagusia

#### Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa .....	Astigarragako EH Bildu
- Aintzane Barandiaran Ezponda.....	Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena.....	Astigarragako EH Bildu
- Roxali Fernandez Rodriguez .....	Astigarragako EH Bildu
- Esti Neira Martinez .....	Astigarragako EH Bildu
- Aitor Güemes Oyarbide .....	Astigarragako EH Bildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz .....	Astigarragako EH Bildu
- Juan Martín Arregui Sagües.....	Astigarragako EAJ-PNV
- Urkiri Salaberria Gracia.....	Astigarragako EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro.....	Astigarragako EAJ-PNV
- Antton Costa Casco.....	Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco.....	Astigarragako EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo.....	Udal-talde Sozialista

#### Bertaratu ez direnak

#### Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezeko udal kontu-hartzailea

#### Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

#### Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N°	ORDEN DEL DIA
2019ko azaroaren 26ko akta onartzea.	1	Aprobación del acta de 29 de noviembre de 2019
2020ko udal aurrekontua	2	Presupuesto municipal del 2020
2020-23ko dirulaguntzen plan estrategikoa	3	Plan estratégico de subvenciones 2020-2023
2020ko langileen zerrenda eta plantilla organikoa	4	RPT y plantilla orgánica del 2020.
Kontxa Etxeberria 1ean dagoen kultur etxeko obra berriaren deklarazioa	5	Declaración de obra de la casa de cultura sita en Kontxa Etxeberria 1.
Astigarragako Hiri Antolaketako Plan Orokorren aldaketa zehatza, HEA 22	6	Expediente de modificación puntual del P.G.O.U. de Astigarraga, referido a la A.I.U. 22 "Ubarburu



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

“Ubarburu Zabalpena”ri buruzkoa		Zabalpena”.
Informazio, galdera eta eskariak.	7	Información, ruegos y preguntas.

### Esan-eginak eta erabakiak

#### 1.- 2019ko azaroaren 26ko akta onartzea.

Urkiri zinegotzia abstenitu egin da aurreko bileran egon ez zelako, gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

#### 1.- Aprobación del acta de 26 de noviembre de 2019

La concejala Urkiri se ha abstenido por no estar presente en la reunión anterior, el resto, en cambio, vota a favor, por lo que se aprueba el acta.

#### 2.- 2020ko udal aurrekontua

Alkateak ogasun eta ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.-** *EHBilduk aurkeztutako erreklamazioaren 1. alegazioa onartzea, 1.0600.227.99.335.00 kontu-sailaren zenbatekoa aldatuz, 40.000,00 eurotik 11.240,20 eurora, eta 1.0600.481.05.00.335.00 partida eratuz 28.759,80 euroekin..*

**Bigarrena.-** *Diru-sarrera eta gastuetan orekatuta dagoen 9.291.408,11 eurotako Astigarragako Udaleko Aurrekontu Orokor Kontsolidatua behin betirako onartzea.*

**Hirugarrena.-** *Behin betiko onarpen erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.*

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du, batzorde informatzailean egin zuten bezala, oraingoan ere kontra bozkatuko dutela, izan ere, gobernu taldeak adierazi duen arren aurkeztu dituzten emendakin batzuk onartu dituztela, gai estrategikotzat dituztenak (Santiгомendiko Plan Berezia eta uholdeentzako kontu-saila) ez direla aintzat hartu, eta gainera aurrekontuan Garbitania eta hiri-hondakinen azterketa sartu dela.

Mikel zinegotziak hitza hartu eta adierazi du bera abstenitu egingo dela, aurrekontua gobernu-taldearen politikaren isla denez.

Alkateak erantzun die hondakinen inguruko azterketa egin nahi dela, egun dagoen

#### 2.- Presupuesto municipal del 2020

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

**Primero.-** *Estimar la alegación número 1 de la reclamación formulada por EHBildu modificando la cantidad de la partida 1.0600.227.99.335.00 pasando de 40.000,00 euros a 11.240,20 euros, y creando la partida 1.0600.481.05.00.335.00 por 28.759,80 euros.*

**Segundo.-** *Aprobar definitivamente el Presupuesto General Consolidado del Ayuntamiento de Astigarraga que asciende a la cantidad de 9.291.408,11 € equilibrado en ingresos y gastos.*

**Tercero.-** *Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el acuerdo de aprobación definitiva.*

La Concejala Nerea toma la palabra y señala que al igual que hicieron en la Comisión Informativa, en esta ocasión también van a votar en contra, ya que aunque el equipo de gobierno ha manifestado que han aceptado algunas de las enmiendas presentadas, no se han tenido en cuenta algunas que consideran estratégicas (Plan Especial de Santiгомendi y partida para inundaciones) y además se ha presupuestado el estudio de Garbitania y residuos urbanos.

El Concejal Mikel toma la palabra para manifestar su abstención dado que el presupuesto es un



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

zerbitzuaren ingurukoa eta baita industrialdeetako hondakinen inguruan ere. Bestetik azaldu du uholdeen aurkako planarentzako zenbatekoa aurrekontuaren gerakinatik hartuko dela, eta Santiagomendiko Plan Berezia baztertu ez den arren, beste lehentasun batzuk dituztela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **onartu** da aldeko 7 botoekin (*Astigarragako EH Bildu*) *abstentzio 1ekin (Udal talde Sozialista)* eta kontrako 5 botoekin (*Astigarragako EAJ-PNV*).

### 3.- 2020-23ko dirulaguntzen plan estrategikoa

Alkateak ogasun eta ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.-** *EHBildu taldeak aurkeztutako erreklamazioa onartzea, honako dirulaguntza izendunak gehituaz:*

- Topagunea 28.759,80 €
- Zubieta bizirik 2.000,00 €
- Emarri 1.000,00 €

**Bigarrena.-** *2020-2023 udalaren dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea.*

**Hirugarrena.-** *Behin betiko onarpen erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.*

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du hasierako onarpenean egin bezala, oraingoan ere kontra bozkatuko dutela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **onartu** da aldeko 7 botoekin (*Astigarragako EH Bildu*) *abstentzio 1ekin (Udal talde Sozialista)* eta kontrako 5 botoekin (*Astigarragako EAJ-PNV*).

reflejo de la política del equipo de gobierno.

El Alcalde responde que se quiere hacer un estudio de los residuos, tanto del servicio existente y como la de los polígonos. Por otra parte, explica que el importe para el Plan de Lucha contra Inundaciones se tomará del remanente y que aunque no se ha descartado el Plan Especial de Santiagomendi, tienen otras prioridades.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen con 7 votos a favor (*Astigarragako EH Bildu*), *1 abstención (Grupo Municipal Socialistas)* y 5 en contra (*EAJ-PNV Astigarraga*).

### 3.- Plan estratégico de subvenciones 2020-2023

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

**Primero.-** *Aprobar la reclamación presentada por EHBildu, incluyendo las siguientes subvenciones nominativas:*

- Topagunea 28.759,80 €
- Zubieta bizirik 2.000,00 €
- Emarri 1.000,00 €

**Segundo.-** *Aprobar definitivamente el Plan Estratégico de ayudas y subvenciones municipales 2020-2023.*

**Tercero.-** *Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el acuerdo de aprobación definitiva.*

La Concejala, Nerea, toma la palabra para manifestar que al igual que en la aprobación inicial, en esta ocasión también votarán en contra.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen con 7 votos a favor (*Astigarragako EH Bildu*), *1 abstención (Grupo Municipal Socialistas)* y 5 en contra (*EAJ-PNV Astigarraga*).



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### 4.- 2020ko langileen zerrenda eta plantila organikoa

Alkateak udal idazkariaren txostenaren nondik norakoak azaldu ditu, eta ondoren kudeaketa eta pertsonal batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.-** Lanpostu zerrendaren inguruan udal idazkariak egindako aldaketa-proposamena onartzea.

**Bigarrena.-** 2020ko lanpostu-zerrenda eta plantila organikoa behin betikoz onartzea, onartutako proposamena txertatuta.

**Hirugarrena.-** Lanpostu-zerrenda eta plantila organikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **ahobatez onartu** da.

### 5.- Kontxa Etxeberria 1ean dagoen kultur etxeko obra berriaren deklarazioa.

Alkateak azaldu du detaile batzuk bukatzeko falta direla, eta ikuskapen osoa ere egin gabe dagoela, eta horregatik baldintzatu dela harrera-aktara. Ondoren, Hirigintza, etxebizitza, ingurumen eta mugikortasuneko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.-** Britac Proyectos SL enpresak Kontxa Etxeberria kaleko 1 zenbakian eraikitako eraikinaren obra berriaren eskritura formalizatzea.

**Bigarrena.-** Alkateari baimena ematea "obra berriaren deklarazioa eta higiezina entregatzeko" eskritura sinatzeko, bai eta eraikina Jabetza Erregistroan inskribatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak ere, zuzenketa- eta/edo argitze-eskripturak barne.

**Hirugarrena.-** Eraikinari alta ematea Astigarragako Udalaren Ondasunen Inbentarioan.

**Laugarrena.-** BRITAC proyectos SLri jakinaraztea obren harrera-akta sinatu ondoren, betetzat joko direla merkataritza-konpainiak Kultur Etxearen

### 4.- RPT y plantilla orgánica del 2020

El alcalde ha explicado los pormenores del informe de la Secretaria municipal, y a continuación ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de gestión y personal:

**Primero.-** Aprobar la propuesta de modificación de la relación de puestos de trabajo realizada por la Secretaria Municipal.

**Segundo.-** Aprobar definitivamente la Relación de Puestos de Trabajo y la Plantilla Orgánica del 2020, incorporando la propuesta aprobada.

**Tercero.-** Publicar la relación de puestos de trabajo y la plantilla orgánica en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

### 5.- Declaración de obra de la casa de cultura sita en Kontxa Etxeberria 1.

El alcalde ha explicado que todavía faltan algunos detalles, y que tampoco se ha hecho una inspección de todo el edificio, por lo que se ha condicionado al acta de recepción. A continuación ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, vivienda, medio ambiente y movilidad:

**Primero.-** Formalizar la escritura de obra nueva del edificio construido –para casa de cultura– por Britac Proyectos SL en Kontxa Etxeberria plaza 1.

**Segundo.-** Autorizar al alcalde a la firma de la escritura de "declaración de obra nueva y entrega de inmueble", así como de cuantos documentos sean necesarios para la inscripción del edificio en el Registro de la Propiedad, incluidas escrituras de subsanación y/o aclaración.

**Tercero.-** Dar de alta el edificio en el Inventario Municipal de Bienes del Ayuntamiento de Astigarraga.

**Cuarto.-** Notificar a BRITAC PROYECTOS SL



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

*eraikuntzari dagokionez bere gain hartutako betebeharrak, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko 38/1999 Legean ezarritako bermeei dagozkienak izan ezik.*

Nerea zinegotziak hitza hartu eta kultur etxea hartzeagatik pozten direla adierazi ondoren, komentatu du aurreko legealdian bere taldeak lan asko egin zuela, eta azalera handitzea ere lortu zutela (erdi sotoa eginez eta kanpoko estalia).

Alkateak erantzun dio azken hilabeteetan ikusi ahal izan dutela koordinazio arazo asko zeudela, oinarrikotzat dituztenak. Azaldu du eskatu zela musika eskola sarrera independentea edukitzea, baina ez dela egin eta orain aztertu behar dela nola konpondu; udal langileek egindako ekarpenak ez direla kontuan hartu eta barne antolaketa ere ez dela landu. Bukatzeko, adierazi du horiek guztiak kudeaketa ez egoki baten ondorio direla.

Nerea zinegotziarentzat alkatearen azalpenak udal gobernu taldearen irakurketa da, azalera handitu izana, ordea, datu objetiboak dira.

Azken adierazpen horrek Nerea eta Andoni zinegotzien hartuko eztabaida sortu du, legealdi desberdinetan gobernu taldeek eremuko sustatzailearekin egin dituzten negoziazioen eta lortutakoaren inguruan.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

*que tras la firma del acta de recepción de las obras, se darán por cumplidas las obligaciones asumidas por la compañía mercantil en relación con la construcción de la KULTUR ETXEA, sin perjuicio de las relativas a las garantías estipuladas en la Ley 38/1999 de Ordenación de la Edificación.*

Tras tomar la palabra la Concejala Nerea y manifestar su satisfacción por la recepción de la casa de cultura, comenta que en la pasada legislatura su grupo trabajó mucho y consiguieron ampliar la superficie (semisótano y cubierta exterior).

El alcalde le contesta que en los últimos meses han podido ver que había muchos problemas de coordinación, los cuales consideran básicos. Explica que se pidió que la escuela de música tuviera una entrada independiente, pero que no se ha hecho y que ahora hay que estudiar cómo solucionarla; que no se han tenido en cuenta las aportaciones del personal municipal y que tampoco se ha trabajado la organización interna. Concluye señalando que todas ellas obedecen a una gestión inadecuada.

Para la concejala Nerea las explicaciones del alcalde son una lectura del equipo de gobierno municipal, el hecho de que se haya ampliado la superficie, sin embargo, son datos objetivos.

Esta última declaración ha suscitado el debate de los concejales Nerea y Andoni sobre las negociaciones y lo conseguido por los diferentes equipos de gobierno con la promotora del ámbito.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

### 6.- Astigarragako Hiri Antolaketako Plan Orokorren aldaketa zehatza, HEA 22 "Ubarburu Zabalpena"ri buruzkoa

Alkateak Hirigintza, etxebizitza, ingurumen eta mugikortasuneko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehenengoa.-** Astigarragako HAPOn testu bateginaren aldaketa puntualaren espediente idaztea, HIE 22 "Ubarburu Zabalpena" ri

### 6.- Expediente de modificación puntual del P.G.O.U. de Astigarraga, referido a la A.I.U. 22 "Ubarburu Zabalpena"

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, vivienda, medio ambiente y movilidad:

**Primero.-** Acordar la redacción del expediente de modificación puntual del Texto Refundido del P.G.O.U. de Astigarraga, en lo referente a la A.I.U



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

dagokionez.

**Bigarrena.-** HIE 22 "Ubarburu Zabalpena" aldatzeko espedientearen herritarren partaidetzarako programa onartzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

### 7.- Informazio, galdera eta eskariak.

#### a.- Garbitania

Mikel zinegotziak adierazi du lehenengo osoko bilkuran Garbitania uzteko akordioa bertan behera uztea erabaki zela, eta gaia nola dagoen galdetu du.

Alkateak azaldu dio hainbat bilera egin direla eta asmoa dela bi zerbitzu horien esku uztea: hezitzailearena eta hiri-bilketarena, bereziki industrialdeena.

#### b.- Ubarburu industrialdeko errepide berria

Nerea zinegotziak informazio berririk dagoen galdetu du, eta adierazi du hasiera batean 2020rako bukatuko zela komentatu zela.

Alkateak azaldu du aste horretan sinatu direla desjabetze-aktak, baina hortaz aparte ez dutela informazio berririk.

#### c.- Haur eskola berria

Nerea zinegotziak galdetu du gaia nola dagoen, baita ere eskatu du itxaro-zerrendaren inguruko informazioa (prentsan azaldu baita herritar batzuk itxaroten zerrendan gelditu direla).

Alkateak erantzun dio azken horren inguruan ez dutela informaziorik. Eraikin berriaren obrari dagokionez, azaldu du espazio banaketa onartutako dagoela, urtarrilerako plano zehatza egongo dela, eta jarraian proiektua idatzi eta obra egingo dela. Bukatzeko adierazi du asmoa dela 2021eko irailean irekitzea, hezitzaileen hitzetan hobe delako leku aldaketa ikasturte hasieran

22 "Ubarburu Zabalpena".

**Segundo.-** Aprobar el programa de participación ciudadana del expediente de modificación del AIU 22 "Ubarburu Zabalpena".

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

### 7.- Información, ruegos y preguntas.

#### a.- Garbitania

El concejal Mikel señala que en la primera sesión plenaria se acordó suspender el acuerdo de abandonar Garbitania, y pregunta como está el tema.

El alcalde le explica que se han celebrado varias reuniones y que la intención es poner a disposición de estos dos servicios: el de educador y el de recogida urbana, especialmente de los polígonos industriales.

#### B.- Nueva carretera del polígono de Ubarburu

La Concejala, Nerea, pregunta si hay nueva información y señala que en un principio se comentó que se iba a finalizar para 2020.

El . Alcalde explica que en esa semana se han firmado las actas de expropiación, pero que aparte de eso, no tienen nueva información.

#### C.- nueva guardería

La Concejala Nerea pregunta cómo está el tema, y pide información de la lista de espera (ya que en la prensa se ha publicado que algunos se han quedado en la lista de espera).

El alcalde le contesta que no tienen información sobre ese último aspecto. En cuanto a la obra, explica que está aprobada la distribución del espacio, que para enero habrá un plano detallado y que a continuación se redactará el proyecto y se ejecutará la obra. Concluye señalando que la intención es que se abra en septiembre de 2021, ya que en opinión de los educadores es mejor que





## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

egitea.

el cambio de ubicación se produzca a principio de curso.

### d.- Ibai parkearen inagurazioa

Nerea zinegotziak adierazi du ezin izan zutela bertaratu, baina kortesia ezetzat hartu dutela ez adierazi izana aurreko legealdian egindako lana, legealdia hasi zenerako obra bukatuta baitzegoen.

Alkateak erantzun dio udalak egindako lanaren inguruan hitz egin zuela. Eta bestetik adierazi dio irekitzea ez dela erraza izan, gauza asko egiteke zeudelako: Ur Agentziaren txostena, txakurrentzako eremu itxia...

Andoni zinegotziak, berriz, erantzun dio ez zela gobernu taldearen izanean hitz egin, udalaren izenean baizik.

### D.- Inaguración del Parque Fluvial

La Concejala, Nerea, indica que no pudieron asistir, pero que consideran falta de cortesía no haber señalado el trabajo realizado en la anterior legislatura, ya que la obra estaba terminada para el inicio de la legislatura.

El Alcalde le contesta que habló del trabajo realizado por el Ayuntamiento. Por otra parte, señala que la apertura no ha sido fácil porque había muchas cosas por hacer: informe de la Agencia Vasca del Agua, zona cerrada para perros ...

El Concejal, Andoni, responde que no se habló en nombre del equipo de gobierno, sino en nombre del Ayuntamiento.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin nik, Idazkariak, honako agiria egin dut

Astigarragan, 2019ko abenduaren 20an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria  
Ordezko udal-idazkaria